

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko HAPOk 32. HEko «Anardi» b.10.32.1 partzelari dagokion Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onespena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko irailaren 9an egindako bilkuran, Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «Anardi» 32. HEko b.10.32.1 partzelari buruzko Birpartzelazio Proiektua onartu du.

Landeta Burdin Lanak Berria, S.L.k eta Tecnalía Research & Innovation Fundazioak sustatu dute birpartzelazio dokumentua, eta Carlos Templado Vallejo industria-ingeniariak eta Fco. Javier Ruiz Iglesias arkitektoak idatzi dute, honako helburuekin:

— Interesdunen artean (Landeta Burnilanak eta Tecnalía Fundazioa) zuzen banatzea behin betiko onartutako «Anardi» 32 HEko b.10.32.1 lurzatiaren xehetasun-azterketan aurreikusitako hirigintza-antolamenduaren onurak eta kargak.

— Finken konfigurazioa arautzea, antolamendu-tresna horretara egokitzeko, eta horien aprobetxamendua plangintzak aurreikusitako eremuetan kokatzea.

— Administrazio jarduleari dagozkion lurzoru-lagapenak zehaztea.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko uztailaren 15eko erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion (2025eko abuztuaren 8ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 150. zk.).

Jendaurrean jartzeko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Birpartzelazioa onartzeko erabakia administrazio-bidean ir-moa denean, Birpartzelazio Proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzeko administrazio-ziurtagiria emango da, eta berariaz adierazi beharko da P2 lurzatiari Urola-Kostako eremuari dagokion ur-hornidura orokorreko zortasuna ezartzen dela.

Akordio honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu dakioke Tokiko Gobernu Batzarrari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean.

Epe horiek iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Azpeitia, 2025eko irailaren 19a.—Alkatea.

(6528)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación referido a la parcela b.10.32.1 del AU 32 «Anardi» del PGOU de Azpeitia.

La Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 9 de septiembre de 2025 ha aprobado con carácter definitivo el Proyecto de Reparcelación referido a la parcela b.10.32.1 del AU 32 «Anardi» del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia.

El documento reparcelatorio ha sido promovido por Landeta Burdin Lanak Berria, S.L. y Fundación Tecnalía Research & Innovation y redactado por el ingeniero industrial Carlos Templado Vallejo y el arquitecto Fco. Javier Ruiz Iglesias, con la finalidad de:

— Repartir equitativamente entre los interesados (Landeta Burdin Lanak Berria, S.L. y Fundación Tecnalía) los beneficios y cargas derivados de la ordenación urbanística prevista en el Estudio de Detalle de la parcela B.10.32.1 del ámbito AU-32 «Anardi».

— Regular la configuración de las fincas para adaptarlas a dicho instrumento de planeamiento, situando su aprovechamiento urbanístico en las zonas aptas para la edificación según dicho planeamiento.

— Determinar las cesiones de suelo que corresponden a la administración actuante.

Por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 15 de julio de 2025, se procedió a su aprobación inicial (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 150 de fecha 8 de agosto de 2025).

Durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones.

Se procederá a expedir certificación administrativa para la inscripción del Proyecto de Reparcelación en el Registro de la Propiedad una vez firme en vía administrativa el acuerdo aprobatorio de la reparcelación, debiendo incorporar expresamente que en la parcela P2 se establece la servidumbre de abastecimiento general de agua correspondiente al ámbito de Urola-Kosta.

Contra el precedente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de Reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

Azpeitia, a 19 de septiembre de 2025.—La alcaldesa.

(6528)